

Kirol-hezitzailea aditu tituluaren gaineko informazio saioak: azaroaren 12an Bilbon, 17an Gasteizen eta 19an Aretxabaletan

2015/11/02

Azaroaren 12an, 17an eta 19an, **Kirol-hezitzailea aditu tituluaren** gaineko informazio saioak antolatu ditu Humanitate eta Hezkuntza Zientzien Fakultateak. Saioak egingo dira Bilboko Bilbao Berrikuntza Faktorian (BBF), Gasteizko Landatxo Gizarte Etxean eta Aretxabaletako campusean. Parte hartu ahal izateko, alde zuzenean, izena eman beharko da.

Bilboko saioa azaroaren 12an egingo da Bilbao Berrikuntza Faktorian (BBF) (Uribitarte, 6an). Gasteizkoa antolatu da Landatxo Gizarte Etxean (Santa Maria, 4) eta Aretxabaletakoa, azkenik, unibertsitateko campusean bertan egingo da azaroaren 19an. Saio guztiak 18:00etan hasiko dira.

Informazio saioetan parte hartu ahal izateko, alde zuzenean, derrigorrez eman beharko da izena horretarako prestatu den web orrian: **informazio saioetan izena emateko web orria.**

Aditu titulu berri honen eskolak hasiko dira 2016ko urtarrilaren 11n. Erdi-presentzileko ikastaroa izango da eta helburua da formatzea kirol esparruan pertsona anitzekin eta testuinguru anitzetan arituko den profesionalak. Profesional hori ikuspegi berritzaile batetik abiatuko da pertsonen garapen integrala bultzatzeko eta gizarte inklusiboago bat eraikitzeko.

Behin kurtsoa eginda, bi funtzio nagusi beteko ditu aditu tituluaren profesionalak: **hezitzailea eta aholkularia**. Kirola ardatza izanik, jarduera hezitzaileak garatzeko proposamen eta proiektuen diseinua, garapena eta ebaluazioa egin ahal izango ditu. Gainera, kirol-hezitzaileak gauzatu ahal izango ditu erakunde edo talde batean aholkularitzarako jarduerak, betiere, erakundearen txertatuz hezkuntza inklusiboaren eta ikuspegi sozialaren balioak.

Egutegiaren gaineko informazio praktikoa:

Egutegia

- **Hasi:** 2016eko urtarrilak 11.
- **Amaitu:** 2016eko ekainak 25 (aditu bukaerako lanen aurkezpenak irailan izango dira).

Eskolak

- Arratsalde bat astean behin (4 ordu) eta larunbat bat hilean behin (5 ordu)
- Ostegunetan, 17:00etatik 21:00ak arte.
- Larunbatetan, 09:00etatik 14:00ak arte.

Informazio gehiagorako:

- **Aditu tituluaren gaineko informazio guztia:** www.mondragon.edu/profesionalak.



Ikastaroa hasiko da 2016ko urtarrilaren 11n.